



“Gipuzkoako Eskulangintza Sektorea Sustatzeko Plana 2020”
ELKARTEAK
ORDAINKETA–LIKIDAZIOA PROZEDURAREN XEHETASUNAK
2020ko AURREKONTUA

1. Proiektuen gauzatze data.

Pertsona eta entitate onuradunek **2021ko otsailaren 26rako** amaituta izan beharko dituzte dirulaguntza jaso duten proiektuak.

2. Amaiturik dauden egitasmoak ondokoa bete behar dute:

- Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete izana zuritzen duen jarduera memoria. Artisautzako azokak eta lehiaketak antolatzen direnean: Eskaera egin dutenen artean onartutako eta baztertutako eskulangintzako pertsonen eta enpresen zerrenda arrazoitua. Hautaketa prozesua eta azoka azaltzen duen memoria (jardueren eta burututako lantegien deskripzioa, horiek hedatzeko eta komunikatzeko xedez euskarri batzuetan eta besteetan burututako ekintzak justifikatzen dituzten agiriak).
- EGITASMOAREN AMAIERA EGIAZTAGIRIA osatu, dirulaguntzaren % 100eko kitapena eskatuz. (1 ERANSKINA)
- BESTELAKO LAGUNTZEN AITORPENA agiria osatu. (2 ERANSKINA)
- BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO EGOERA AITORPENA agiria osatu. (3 ERANSKINA)
- Excel orria bete: GAUZATUTAKO GASTUAREN ZEHAZTAPENA. (4 ERANSKINA).
- ARDURAPEKO ADIERAZPENA (5 ERANSKINA)
- PERTSONALAREN ORDUEN ADIERAZPENA. (6 ERANSKINA)
- Ordainketen frogagiriak.
- Fakturak edo fotokopia konpultsatuak
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren beste sarreraren edo dirulaguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Proiektuan zehar sortutako dokumentazioa atxiki.

3. Entitate onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 15.000 euro edo hortik gorako gastu subentzionagarriak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, non eta laguntzaren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahikoa enpresa edo profesional ez dagoenean edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez den.

4. Entitatearen betebeharrak fiskalen egiaztatzea GFAko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren esku geratu zen, horretarako baimena eman baizion entitateak eskabide agiria luzatzean. Beraz, egiaztatze lan hauek GFAko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak kudeatuko ditu zuzenean, hala behar izan ezker.

5. Dokumentazioa egoitza elektroniko
(<https://egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/WATTramiteakWEB/inicio.do?idioma=C&app=00001>)
bidez aurkeztu behar da.

Norentzat:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua
Ekonomia Sustapeneko Zerbitzua – ARTISAUTZA